

CONXEMAR 2016

Deialdia

Tokia: IFEVI azoka gunea, Vigo

Data: 2016ko urriaren 4tik 6ra arte

Maiztasuna: Urtero

Sektorea: Hainbat banaketa kanaleko profesionalak (inportatzaileak /esportatzaileak, banatzaileak, prozesatzaileak, banaketa handia eta HO.RE.CA. kanaleko espezialistak)

Erakusketa eremua: 31.500 m²

Partaidetza 2015ean: 33.000 bisitari eta 40 herrialdeko 500 erakusle baino gehiago.

Izen emateko epea: 2016ko ekainaren 3a arte

Informazio gehiago: Nora Goitia

agro@camarabilbao.com

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak, Euskadiko Elikagaien Industria atzerrian sustatzearen aldeko jarduketan barruan, enpresen taldeko partehartzea antolatuko du **CONXEMAR 2016** azokan,

aurtengoa hamazortzigarren edizioa izanik.

CONXEMAR azoka **Vigon** izango da, **2016ko urriaren 4tik 6ra**.

DEIALDI HONETAN

Azokaren izaera

Parte hartzeko baldintzak

Parte hartzeko modeloa eta kostua

Eusko Jaurlaritzarekin parte hartzea

Eskeinitako zerbitzuak

IZEN EMATEAREN FITXA

AZOKAREN IZAERA

www.conxemar.com

- Arraina eta edonolako produktu izoztuak merkaturatzen dituzten sektoreei zuzenduta, produktu izoztuen gaineko estatuko azokarik garrantzitsuentzat eta munduko bigarrentzat jotzen da.
- Publiko profesionalera bideratuta eskusiboki, banaketa kanaletan liderrak diren erosle kopuru handi bat erakartzen du.
- 2015ean 40 herrialdetako 500 erakusle baino gehiago izan ziren, 31.500 metro koadroko erakusketa esparru batean, eta 96 herrialdetako 33.000 bisitari joan ziren.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Ekitaldian parte hartu ahal izango dute egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresa produktoreek, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Elikadura Industrien Erregistroan izena emanda badaude.

1. Azokaren aurretik

- Enpresaren ordezkari baten aldetik joateko konpromisoa eta kuota ordaintzea; beraz, EAEko pabiloian sartuko dela jakinarazten denetik ezingo da ekitaldian baja eman. Halabeharrezko kasuetan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea erreserbatzen du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eta, behar bada, ordaindutako zenbatekoaren portzentaje bat itzultzeko.
- Muntatzen den egunean enpresak derrigor egon behar dira, esaten zaien orduan merkantzia jasotzeko, eta beraien erakustokien dekorazioa amaitzeko, jardunaldia hasi baino lehenago.

2. Azokan zehar

- Euskal Autonomia Erkidegoko produktuak baino ezingo dira erakutsi. Ezin izango da, beste autonomia erkidego batzuetako produktuak aipatu, ezta aurkeztu ere.
- Standetan azokako egun guztietan eta zabalik dagoen ordu guztietan eman behar da arreta.
- Azoka amaitzerakoan produktu guztiak behar bezala jaso eta standeko elementuak entregatu, jaso ziren egoera berberetan.

3. Azokaren ondoren

- Ebaluazio inkesta bete eta eskatzen zaienean entregatu.

PARTE HARTZEKO MODELOA ETA KOSTUA

EAEko partaidetza bateratuko taldean parte hartu nahi duten enpresak honetaz baliatu ahal izango dira:

- Stand partekatua: 110 m²-ko stand bat interesa duten euskal arrantzaren industriako enpresentzat.
- Kokapena: Erakunde ofizialen E Hallean.

Parte hartzeko bi aukera eskaintzen dira:

- Stand modelo [INDIBIDUALA](#)
- Stand modelo [BIKOITZA](#)

CONXEMAR 2016an, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasunerako Sailetik Euskal Autonomia Erkidegoko lehen sektorearen produktua eraldatu eta merkaturatzen duten enpresen parte hartzea bultzatuko da.

Ondoren ekintzetan parte hartzeak dakarren kostua finantzatzeko diru laguntzetarako egingo den sailkapena adierazten dugu.

1. motako enpresa

Nagusiki Euskal Herriko lehengaez hornitzen diren enpresak. Enpresak produktuaren jatorriaren egiaztatu beharko du.

Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen diru laguntza %70 izango da, eta kostuak honela geratzen dira:

Stand Indibiduala: 878 € + BEZ 21%

Stand Bikoitza: 1.756 € + BEZ 21%

2. motako enpresa

Euskal Herririk kanpoko lehengaez hornitzen diren enpresak, tokiko lehen mailako produkzioerik ez badago, betiere.

Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen diru laguntza %50 izango da, eta kostuak honela geratzen dira:

Stand Indibiduala: 1.463 € + BEZ 21%

Stand Bikoitza: 2.926 € + BEZ 21%

3. motako enpresa

Nagusiki Euskal Herriko produktuez hornitzen ez diren enpresak, nahiz eta tokiko lehen mailako produkzioa egon.

Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen diru laguntza %30 izango da, eta kostuak honela geratzen dira:

Stand Indibiduala: 2.049 € + BEZ 21%

Stand Bikoitza: 4.098 € + BEZ 21%

Oharra: *stand bikoitza esleitzeko irizpidea enpresa parte hartzaileen kopurua izango da.*

Parte hartzeko kuota bi zatitan ordainduko da, baina faktura bakarra izango da.

- Zenbatekoaren %50 + BEZ %21 izena emateko orduan eta espazioa erreserbatzeko kontzeptuarekin.
- Gainerako zenbatekoa jardunaldia egin baino 60 egun lehenago ordaindu beharko da.

EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA

Parte hartzeko interesa baduzu, eta leku kopurua mugatua denez, gomendatzen dugu izena emateko fitxa behar bezala beteta lehenbailehen bidaltzeko e-mail bidez, Nora Goitia edo Lucía de Artazari: agro@camarabilbao.com.

Enpresa parte hartzaileen hautaketa izena emateko dokumentuak jasotzeko hurrenkeraren arabera egingo da. Zure eskaria kontuan hartzeko, honako dokumentu hauek bidali behar dituzu adierazitako helbideetara mezu elektronikoko bidez:

1. **Eskari fitxa erantsita, behar bezala beteta.** Fitxa horretatik bertatik transkribatuko dira datuak azokaren katalogo ofizialerako eta sustapenerako lantzen diren gainerako elementuetarako.

2. **Gunea erreserbatzeko kuotaren ordainagiria (kostuaren %50 + BEZ %21).**

Ordainketa banku transferentzia bidez egingo da:

Kontu zenbakia: **ES97-0182-1290-3600-0001-7727 (BBVA)** BILBOKO MERKATARITZA GANBERAren izenean.
Kontzeptua: "Enpresaren izena + CONXEMAR 2016".

Dagokion zenbatekoaren faktura parte hartzea baieztatu eta gero bidaliko da.

IZENA EMATEKO EPEA: 2016ko EKAINAREN 3a

Bigarren zatiaren ordainketa ekintza egin baino 60 EGUN LEHENAGO egingo da.

GARRANTZITSUA:

Eskatutako dokumentuak bidaltzeak **EZ DU ESAN NAHI** enpresak Eusko Jaurlaritzaren pabiloian parte hartuko duela; Sailak izen ematea onartu duen jakinaraziko du.

ENPRESAK FAKTURA JASO ETA GERO, HAU DA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PABILOIAN SARTU DELAKO JAKINARAZPENA JASO ETA GERO, PARTE HARTZEARI UKO EGITEN BADIO, ORDAINDUTAKOAREN %100 GALDUKO DU.

Halabeharrezko kasuetan baino ez, antolakuntzak eskubidea erreserbatzen du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eta, behar bada, ordaindutako zenbatekoaren portzentaje bat itzultzeko.

Enpresek ordaindutako zenbatekoak itzultzeko kasu hauek baino ez dira kontuan hartzen:

- Enpresa erakusleak eskatutako gunea Azokaren Antolakuntzak Eusko Jaurlaritzari esleitutako gunea baino handiagoa bada, hautatu ez diren enpresek eskubidea izango dute aurrez izena emateko kuota itzultzeko.
- Eusko Jaurlaritzak halabeharrez edo nahiko partaiderik ez dagoelako parte hartzea bertan behera uzten badu, enpresek eskubidea izango dute ordaindutakoaren %100 jasotzeko.

ESKEINITAKO ZERBITZUAK

Eusko Jaurlaritzak zerbitzu hauek eskainiko ditu:

Espazioa kontratatzea

Espazio promozional batekin parte hartuko da, eta hori enpresa ko-erakusle bakoitzerako pertsonalizatutako stand partekatuetan, indibidualetan eta bikoitzetan banatuko da.

Pabiloiaren dekorazioa

Standa hornitzeko dekorazioa eta oinarrizko altzariak uniformeak izango dira EAEko erakusle guztientzat, eta, edonola ere, hau egongo da:

- **Stand indibiduala:** mahaia eta 4 aulki, erakusmahaia, enpresaren errotulua, konexio elektrikoa eta biltegia.
- **Stand bikoitza:** 2 mahai eta 8 aulki, 2 erakusmahai, enpresaren errotulua, konexio elektrikoa eta biltegia.

Pabiloia mantentzea (garbiketa, elektrizitatea, ura, etab.)

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen ditu garbiketako zerbitzu orokorrak, elektrizitatea, ura, etab., eta, oro har, pabiloia egoki mantentzeko lanak.

Stand bakoitzerako potentzia elektrikoko tope batzuk eta gehienezko kontsumo batzuk egongo dira, eta horren berri jakinaraziko zaie ko-erakusleei parte hartzea prestatzeko tramiteak hasten direnean.

Oharra: *oinarrizko altzariak, elementu elektrikoak edo behar elektrikoak aldatzen badira, kostuaren igoera edo aldaketa eragiten badu, dekoratzaileak zuzenean fakturatuko dio enpresa erakusleari, eta enpresa horren kontu izango da zenbatekoaren igoera.*

Merkantziaren garraioa

Eusko Jaurlaritzak merkantziaren bidalketa bateratu bat antolatuko du esleitutako garraiolari ofizialak adierazten duen lekutik merkantzia standean bertan entregatu arte. Bere garaian, esleipena duen enpresa garraiolariaren datuak emango dira.

Garraioaren kontratazioa indibiduala izango da; ondorioz, garraiolariak zuzenean bidaliko dio enpresa erakusleari merkantzia bidaltzearen kostua, eta zerbitzua enpresaren kontu joango da.

Hotz kamerak eta beste etxetresna elektriko batzuk

Hotz kameren eta beste etxetresna elektrikoek alokairua erakuslearen kontu izango da. Halere, Saila enpresen esanetara jartzen da zerbitzu hori kontratatzea koordinatzeko, eta hornitzaileak zerbitzuak zuzenean erakusleari fakturatuko dizkio.

Katalogo ofizialean sartzea

Eusko Jaurlaritzak azokara joaten diren enpresa erakusle guztiak azokaren antolakuntzak argitaratzen duen katalogo ofizialean agertzeko egin beharreko tramite guztiak egingo ditu; bertan ekitaldiko erakusle guztiak agertzen dira erregistratuta (IZENA EMATEKO FITXAn jasotako datuak agertuko dira).

Komunikazio eta zabalkunderako kanpaina

Eusko Jaurlaritzak azokan izango dugun presentziari buruzko komunikazio masiboko kanpaina bat egingo du prentsa espezializatuan eta erosle potentzialen artean, eta gure enpresak bisitatzera eta gure produktuak dastatzera gonbidatuko ditu.

IZEN EMATEAREN FITXA

Eusko Jaurlaritzako pabiloian egon nahi dut CONXEMAR 2016 azokan erakusten, baldintza hauen arabera;

STAND INDIBIDUALA

STAND BIKOITZA

Enpresaren izena KATALOGO OFIZIALERAKO:	
Oharra: izen hau sustapenareko erabiliko diren elementu guztietan agertuko da	
Sozietatearen izena:	
I.F.K.:	EIE zk.:
Helbidea:	
Kalea/Enparantza/Etorb.:	
P.K. Udalerria:	Probitzia:
Tel.:	E-mail:
Fax:	Web:
Standaren arduraduna:	
Mugikorra:	
Erakutsiko diren produktuak eta markak:	
Produktuak	Marka
1	
2	
3	
4	
5	

Data, sinadura eta enpresaren zigilua:

Bidali, behar bezala beteta, **2016ko ekainaren 3a baino lehen**, posta elektronikoz e-mail: agro@camarabilbao.com edo fax bidez 944220061, transferentziaren kopiarekin GUNEAREN ERRESERBA